

## **2021EKO MARTXOAREN 9AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.**

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2021EKO URTARRILAREN 26KO BILKURAREN AKTA).

2.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

3.- GALDE ERANTZUNAK.

### **ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

#### **ALKATE-LEHENDAKARIA**

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

#### **ZINEGOTZIAK**

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).  
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)  
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).  
Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).  
Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).  
Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).  
Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

### **EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

## **1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2021EKO URTARRILAREN 26KO BILKURAREN AKTA).**

Alkateak, 2021eko urtarrilaren 26ko bilkuraren aktan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen da adierazitako akta.

## **2.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.**

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 013/0221 erabakia, otsailaren 17koa, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergan familia ugarien titular direnei hobarien zerrenda onartuz.
- 014/0221 erabakia, otsailaren 17koa, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren 2021eko errolda onartuz.
- 015/0221 erabakia, otsailaren 18koa, zenbait biztanleei ofiziozko baja ematea bideratuz.
- 016/0221 erabakia, otsailaren 23koa, hiri izaerako lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga ezarriz, zenbait kitapenen zerrenda onartuz.
- 017/0221 erabakia, otsailaren 23koa, lan baimena emateari buruzkoa.
- 018/0221 erabakia, otsailaren 23koa, etxebizitzan lan baimena emateari buruzkoa.
- 019/0221 erabakia, otsailaren 26koa, 4 zenbakidun fakturen erlazioa (otsaila 2), guztira 61.255,87 euro, onartuz.
- 020/0221 erabakia, otsailaren 26koa, peoi lanak egiteko kontratua bideratzeari buruzkoa.
- 021/0221 erabakia, otsailaren 26koa, Leader eremuko programan, "ludoteka eta gazteleku erabilera izango duten solairuko lakalen egokitzapena" egiteko diru-laguntza eskatzeari buruzkoa.
- 01/0321 erabakia, martxoaren 1ekoa, lorazaintza lanen 2020-2021 kontratazioari dagozkion 1.160,64 euroko atzarapenak onartuz.
- 02/0321 erabakia, martxoaren 1ekoa, lursailen bereiztea egiteko baimena emanez.
- 03/0321 erabakia, martxoaren 2koa, txabolaren teilatua konpontzeko baimena emanez.
- 04/0321 erabakia, martxoaren 2koa, egurra ateratzeko lanak bideratzeko herri bidea erabiltzeko baimena emanez.
- 05/0321 erabakia, martxoaren 8koa, Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergan, familia ugarien titular izateagatik hobari-onuradunen zerrenda onartuz.

### **3.- GALDE ERANTZUNAK.**

- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), adierazten du, jakin duela dendariekin bilera bat egin dela, Ertzaintzak azken egunotan bideratutako ohartarazpen eta isunen ondorioz. Alkateak adierazten du, bileraren helburua bereziki karga-deskarga eremuak aztertzea izan zela (Manolo aurrean, Txanton-Correos eremuan, eta Kooperatiba ondoan). Duela urte batzuk onartutako araudia eta eremuen arabera, udalak eremu horien helburua zein zen jakinarazi zitzaizela azaltzen du, eta hau, Ertzaintzari ere helarazi zitzaiola. Zentzu horretan jakinarazten du Ertzaintzak esan ziola, karga-deskarga eremu horietan kartel bat jarri beharko dela, eta ondorioz, dendariei adierazi zaie kartel bat kokatuko dela, eremuaren erabilera dendarien bezeroentzat eta ibilgailu profesionalentzat mugatuko dela (eta Ertzaintzari ere transmitituko zaiola erabilera zein izango den). Okindegiko eremuari

dagokionez, bertako erabilera mugatu egingo dela azaltzen du, honela, okindegiko hornitzaileei sarrera bakar bat egiteko aukera edukiko dutela esan zaie, plazako adokinatua mantentzeko helburuarekin. Azkenik, bilkurakideak eremu horietan zenbait herritarrek (Txanton eremuan bereziki) egiten dituzten erabilerei buruz eztabaidatzen dute, kasu gutxi batzuek erabilerak okerrak sortzen dituzten arazoak azalduz.

Aztertzeke gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko seiak eta berrogeita bost minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

**Eginbidea.**

Aurrean transkribaturiko akta, ..... orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan ..... zenbakitik ..... zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, ..... zenbakitik ..... zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2021eko .....k .....

**O.E./ VºBº**  
**ALKATEAK/EL ALCALDE**

**Diligencia.**

Para hacer constar que el acta que antecede tiene ..... folios, numerados del ..... al ..... en número de papel timbrado y del ..... al ..... en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a ..... de ..... de 2021.

**IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO**